



Altza

Gora San Martzial!


Uztailaren 2a arte, Altzatarrak elkarteak antolatuta-ko San Martzial jaiak izango ditugu. Sagardo Eguna, danborrada, esku pilota partidak, Santa Ixabel eguna... Denetarik izango dugu. Zuk aukeratu.



Sagardo Eguna

Larunbat arratsaldean, VII. Sagardo Eguna egingo da Plaza Gorrian. Astigarragako Lizeaga, Gartziategi eta Petritegi, Hernaniko Otsua-enea eta Altzueta, Erreneriako Egiluze eta Urrietako Eula sagardotegiek parte hartuko dute Sagardo Egunean.

Idi-dema Santa Ixabel egunean



Asteazkenean, uztailak 2, Santa Ixabel egunean, idi-dema egingo dute Altzako probalekuan. Frantzesilaga Berriko Loinaz, Lasarte-Oriako Telleria, Zamalbideko Irarreta eta Asteasuko Olarreta baserrietako idi pare banak parte hartuko dute. 09.00etan idien pisaketa egingo da. Bi idi pare 12.00etan ariko dira eta beste biak, 18.00etan. Sari


edo garaikurren bat eskuratzeko, idi pareek, gutxienez, 30 plaza egin beharko dituzte 2.000 kiloko harriarekin.

Danborrada eta San Martzial ereserkia

Igande gauetz, San Martzial bezperan, danborrada mistoa aterako da kalerá. Aurten 30 bat lagun ibiliko dira auzoan danborra joaz. Nabarmentzekoa da danborjoleek iaz zendutako Imanol Elizasu auzotarra oimenduko dutela. Danborrada ondoren, udaletxean, Altzako bandera igo eta San Martzial marxa abestuko dute bertaratutakoek:

Kanta diezkiogun gustoz Martziali gozoak

Saria emango digu gure Jaungoikoak



Zure bost ogiekin, zure bi arraiekin

Bost milak izan zuten mantendu zerekin

Hargatik zure ondoren dabilta gizonak

Kanta diezkiogun gustoz Martziali gozoak

Saria emango digu gure Jaungoikoak (bis)

Bi pareta, dejadak...

Larunbat goizean, VII. Koadriren Esku Pilota Txapelketaren finalerdiak eta finala jokatu dira. Alde batetik, Tamayo eta Martinezek Garaban eta Razkinen kontra jokatu dute; Bestetik, Izagirre anaiek Arlegi eta Sañudo izango dituzte aurkari. Garaile ateratzen diren bi bikoteek finala jokatu

dute ondoren.

Bestalde, astelehenean Esku Pilotaren Egunaren ildotik, pilotari altzatar gazte asko ikusiko dugu frontoian. Goizean alebin eta kadete mallako partidak jokatu dituzte, eta arratsaldean gazteen eta afizionatuen txanda izango da.



arratole C.B. *Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*
Altzariak eta aroztegia

Larratxo 98 -A1 Lokala • Tel: 943 351714 • 20017 Altza

METALICAS OLETA
Aluminio aroztegia
Atariak • Lehiak • Terrazen estaldurak •
Bainuontziak • Plastikozko pertsiak jartzen ditugu

Jai zoriontsuak opa dizuegu
Kasares pasealekua 42 behe eskubia Tel: 943 352738
Oleta auzoa - Donostia.

IRISH REPUBLIC

Arriberri, 7 ALTZA (Donostia)
Kasares Kultur Etxe eta Altza
Polikiroldegaren ondoan
autobusez bazatoz, hobe!
Autobus lineak 13, H6, 24 eta 27



Ostirala 27

17.00 Bolo txapelketa haurrentzat, Altzako bolatokian

18.30 Sanmartzialetako "Toka Jaurtiketa Itzela"

19.00 Txupinazoa eta buhendiak

22.00 Dantzaldia Miramar taldearekin

Larunbata 28

10.30 VII. Koadrilen Esku Pilota Txapelketaren finalerdiak eta finala

12.30 Herri Ametsa taldearen dantza eta musika emanaldia

17.00 Bolo txapelketa helduentzat

18.00 Azahar dantza taldearen emanaldia, frontoian

18.30 VII. Sagardo Eguna

Igandea 29

08.00 Diana Ilunbeko dultzaineroekin

13.00 San Martzialeko erretiratuen abesbatza eta errondaila, frontoian

17.00 Bote eta igel txapelketa helduentzat.

18.00 Alkartasuna dantza taldearen emanaldia, frontoian

20.00 Elizako koruak Salbea abestuko du lau ahotsez eta organoz lagunduta, San Martzial elizan

21.00 Danborrarien afaria, Alztarrak elkartean

22.30 Danborrada

23.45 Imanol Elizasu zenari omenaldia egingo zaio

00.00 Altzako bandera jasoko dute udaletxean eta bertaratu-takoek San Martzial marxa abestuko dute, Pasai txarangak lagunduta

Astlehena 30

San Martzial eguna

08.00 Diana Ilunbeko dultzaineroekin

10.00 Meza Nagusia San Martzial elizan. Esku pilota partidak (goizez eta arratsaldez)

18.00 Kukubiltxo antzerki taldearen "Mamutxak" obra, San

Martzial plaza inguruan

Asteartea 1

11.00 Hildako altzatarren aldeko meza

12.30 Toka txapelketa erretiratuentzat

16.30 Haur jolasak

17.30 Erretiratuen toka, mus, igel eta bote txapelketetako sari banaketa, zahar etxean

18.00 Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia, frontoian. Ondoren, txokolate jatea egingo da

18.30 Luntxa zahar etxean, Lazarraga orkestrarekin

Asteazkena 2

Santa Ixabel, Baserritarren Eguna

09.00 Idi-deman parte hartuko duten idien pisaketa

10.00 Meza nagusia San Martzial elizan

10.30 Altzako Baserritarren Produktuen II. Lehiaketa, Altzako plazan. Zahar etxeko lagunek taloak egingo dituzte

10.45 Sagardo lehiaketa, fron-

Egitaraua



toian

12.00 Idi-dema

13.30 Bertso saioa Lizaso eta Egaña bertsolariekin. Gai jar-tzailea: Altzako Gazteluene bertso eskola

14.30 Bazkaria Alztarrak elkartean, Lizaso eta Egaña bertsolariekin. Ondoren, baserritarren produktuen lehiaketaren sari banaketa

18.00 Idi-dema

19.45 Bertso saioa Lizaso eta Egañarekin

23.00 Zezensuzkoa eta jaien amaiera

Egun osoan Igeldoko trikitilariak auzoan ibiliko dira

ALTZA HERRI IKASTETXEA S.J.C.



TXAPIN-ENE 21-23 • 20017 DONOSTIA • Tel. eta faxa: 943 35 20 24
altzaeskola@euskalnet.net

El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: 943 420607

Mugikorra: 608 67 69 74
Tel.: 943 35 23 85
Fax: 943 35 17 73



Martus. Bidea 69
Illarregi Baserria
ALTZA

J.M. ARRIETA GARRAIOAK